

Donibanez

Aspaldiko ekainaren 23 batean, Espainiatik etxerakoan, trenak Euskadiko muga zeharkatu zuen iluntzean eta suak ageri ziren eskuin-ekzer, herri guztietan. “Magikoa zela” esango genuke orain; eta hala izan da beti, nahiz, antzina, magiaren zentzua ez zen hain lirikoa, oso pragmatikoa baizik, errealitatea baldintza zezakeen jarduera.

Festa lardaskatzaile iruditzen arriskuan ere, esan behar da Donibane gaueko alamartxoetan ez zela eguzkia gurtzeko edo bere ibilbidean laguntzeko asmorik nabaritzen. Suak ez ziratekeen ere pena-doloreez gabetzeko eta traste zaharrak botatzeko erraustegiak: trasteak birziklatu egiten ziren gehienak eta suen helburua izaki kaltegileak suntsitzea zen batez ere. Gosea eta eritasuna ekartzen zituzten gaizto eta zitalak oro, harri erauntsi eta ekaitz egileak, begizko jaurtitzatzaileak, horiek akabatu nahi zituztela aldarrikatzen zuten, bai hitzez eta bai jestuz, “apoak eta sugeak erre, garia eta artoa kutxan gorde” kantatuz, sorgin itxurako panpinak errez.

Ideiak iraun du: maiatzean, Frantziako lan erreformaren kontrako manifestariak, Albi hirian, su eman zioten François Hollande eta lagunaren erretra-



Anuntxi Arana
ANTROPOLOGOA

Ideiak iraun du: maiatzean, Frantziako lan erreformaren kontrako manifestariak, Albi hirian, su eman zioten François Hollande eta lagunaren erretra-

tuei, gaiztaginak direlakoan. Kiskaltze sinbolikoak, beharrik, garai batean egiazki erretzen baitziren ustezko sorginak eta, XIX. mende arte, sugeak, katuak eta beste deabruzko animaliak.

Pragmatismoak ez ziren jendeei galarazten suen ederraz gozatzea eta jokoetan loriatzea. Orozkon, soroetara

gurutze babesleak plantatzera joaten zirenean, suzi piztuak eramaten zituzten eskuan eta firrindaka erabiltzen zituzten, txinpartazko gurpilak ateratzeko moduan. Eta dena bukatutakoan, pozik itzultzen ziren etxera, errittoa ondo bete-eta, uzta ona lortuko zuten itxaropenez.

San Joan gauak eta egunak daukaten aparteko bertutea landare eta uretara ere pasatzen da. Irudiz ez eguzkiak emana, hura ageri baino lehen batu behar baitira belarrak, edo berdin ihintzetan ihalozkatu. Txarrerako baliatzen omen zuten sorginek bertute hori, eta gau osoan ibiltzen ziren ukendurako gai pozoitsuak nola bildu. Jende onek tiroz eta kanpai hotsez uxatzen zituzten. Eta gaur egunean, alamartxo osasungarriaren gainean jauzi egiten dute; baita kean pasatzen ere lore-sorta, indarrez areagotu eta ate aurrean ezarririk, etxea zain dezan.

Noizbait Elizak onartu zituen errittoa horiek eta maiz bedeinkazioa gaineratu zien. Askoz geroago, *new age* iragan da ororen gainean eta xedeak desmaterializatu dira: gosetik libratu eta ongizate zoriontsua bilatzen da nagusiki. Eta horrela menderik mende, noiz bil eta noiz utz, egundaino iritsi da Donibane jaia, guztien pozgarri eta urte askotarako. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
RiO Arga Kalea 28, 31014 Iruña lua@luark.com

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

www.eskulanenetxea.com

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5 · Donostia · 943 420 205